

NABARNIZ / Liburutegiak ordutegi zabalagoa izango du

EAE-k egindako proposamena onartu dute; liburutegia bost orduz egongo da zabalik

D. Lauzirika

Abendutik aurrera Udal liburutegiak ordutegi zabalagoa izango du. Berau astelehenetik barikura bost orduz egongo da zabalik, 15:00etatik 20:00etara.

Egun Udal liburutegia Urretxindorra eskolan dago, Kurtzero auzoan. Orain arte liburutegiko arduradunek berau egunero ordu eta erdiz, 16:00etatik 17:30ak arte irekitzen izan dute.

Liburutegiaren ordutegia aldatzearena Eusko Abertzale Ekintza Udal taldeak berriki kultur arloan egindako eskaeretako bat da. Eskaera hauetan EAE-k Muxika Garbiren babesa izan du. EAJk osoko bilkuran aztertu gabe liburutegiaren ordutegia aldatzearen eskaera zuzenean onartzea erabaki du.

Lehenengo pausoa

Erabaki honekin lehenengo pausoa betetzen da. Liburutegia eguneratzea ere eskatu dugu. Izan ere, Zubieta Errotan egingo duten liburutegi berria aitzakiatzat hartuz oraingo liburutegiari ez zaio kasu handirik egin, adierazi dute EAE Udal taldeko ordezkariak.

Bestealde, gaur 19:00etan osoko bilkura izango da udaletxean.